



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 3a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu ortoprotesikoen katalogoa egunera dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da politika zalu eta eraginkorra balia dezan enpresa-finantzaketako lerroak eta abalak aplikatzean, eta, hartara, horiek koordinatu eta izapidetzeko eta horiei buruz aholku emateko erreferentzia-gune bat sor dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lorko aintziraren egoerari buruzko azterlan gaurkotu bat egin dezan, haren natur balioen babes-mailari dagokionez. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrakoaren Plan Estrategikoa. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat taxutu eta bidal dezan, PFEZean gizarte-intereseko beste xede batzuetarako laukitxoaren bidez lortutako tributu-dirusarreren destinoa arautzeko. Mozioa erretiratzea (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Antolamendua Hobetzeko Planaren amaierari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (10. or.).

- Galdera, larrialdi zerbitzuak bateratzeari buruzko adituen batzordearen osaerari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Barañaingo liburuzainei *Berria* eta *Gara* egunkariak erosteko ezarritako debekuari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan eratutako batzordeei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko noiz eta nola beteko duen Osasun Departamentuak Parlamentuaren agindua, Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako eraikinaren proiektua aldatzeari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari ordainik emateko, hasiera batean Lekarozko zentrorako zen kontusaila hezkuntza eta kultura arloko proiektuetarako bideratzeagatik, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (13. or.).
- Galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko zer formula zehatz erabili den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan dirusarreraren atal bakoitzean, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Leader Ardatzeko kofinantzaketako diruaren erabilerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Tracasako akziodunetan 2003tik aitzina izandako aldaketei eta aldaketa horien arrazoiei eta irizpideei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Baluarteko Ganbera Aretoan eginiko jardueri buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren karietara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimendutako maileguei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren karietara banke-
txeek emandako eta ukatutako maileguei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7 arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Sozialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten

tributuen % 0,7 arautzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko apirilaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko**

apirilaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu ortoprotesikoen katalogoa egunera dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zerbitzu ortoprotesikoen katalogoa egunera dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prestazio ortoprotesikoen katalogoa eguneratu dezan, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Prestazio ortoprotesikoan, osasun arloko produktuak erabiltzen dira gorputzaren egitura bat bere osotasunean edo hein batean ordezkatzeko edota bere funtzionamendua aldatu, zuzendu edo errazteko. Prestazioan sartzen dira gaixoaren bizi kalitatea eta autonomia hobetzeko beharrezkoak diren osagaiak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak prestazio hori eskaintzen du, eta, ondorioz, prestazio ortoprotesikoen katalogoan ezarritako dirula-

guntzak ematen ditu. Katalogo hori da Nafarroako Osasun Zerbitzuak era guztietako material ortoprotesikoa erosteko ematen dituen laguntza guztien gida bat.

Nafarroan 4.000 eskaera inguru jasotzen dira urtero aipatu prestazioa jasotzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko produktu ortoprotesikoen katalogoa 1998koa da, eta ez da inoiz eguneratu ez eta berrikusi ere. Oraindik pezetatan dago adierazita; hori dela eta, erabat zaharkituta geratu da eta ez die modu egokian erantzuten pertsonen protesien eta ortesien arloan dituzten beharrezane.

Produktu bakoitzari esleitutako tarifei dagokienez, horien prezioa ez da eguneratu 1998tik, ezta KPIa ere. Horrek esan nahi du alde handia dagoela produktuaren prezio errearen eta horietako bakoitzari laguntza gisa esleitutako kopuruaren artean; izan ere, produktuen prezioa igo egin da kasu askotan, baina produktu horrengatik ematen den dirulaguntza ez da eguneratu 1998az geroztik.

Produktuen katalogoa aztertuz gero, ikus dezakegu badirela jada erabiltzen ez diren gailu protesikoak. Halaber, merkatuan protesi berriak agertu dira, aurreratuagoak, erabiltzen dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetzen dutenak, baina produktu horiek ez daude jasota katalogoan.

Halaber, uste dugu beharrezkoa dela pertsona batek protesia edo ortesia erosteko laguntza jasotzeko ezarritako prozedura aldatzea, laguntza horiek zorrotasun handiagoz kontrolatzeko.

Horrengatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestazio ortoprotesikoen katalogoa eguneratu dezan eta berrikusi ditzan gailu bakoitzari esleitutako tarifak, katalogoan jasota

dauden produktuak eta osasun arloko prestazio hori emateko prozedura.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da politika zalu eta eraginkorra bali dezan enpresa-finantzaketako lerroak eta abalak aplikatzean, eta, hartara, horiek koordinatu eta izapidetzeko eta horiei buruz aholku emateko erreferentzia-gune bat sor dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita politika zalu eta eraginkorra bali dezan enpresa-finantzaketako lerroak eta abalak aplikatzean, eta, hartara, horiek koordinatu eta izapidetzeko eta horiei buruz aholku emateko erreferentzia-gune bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita politika zalu eta eraginkorra bali dezan enpresa-finantzaketako lerroak eta abalak aplikatzean, eta, hartara, horiek koordinatu eta izapidetzeko eta horiei buruz aholku emateko erreferentzia-gune bat sor dezan, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Iragan azaroan onetsi ziren Nafarroako ekonomia suspertzeko neurri buruzko Foru Legea eta Aurrekontuei buruzko Foru Legean eta Tributu neurri buruzko Foru Legean jasotako ekonomia suspertzen laguntzeko neurriak; besteak beste, Aval Navarra izenekoak. Ondorioz, badira abian zenbait jarduera, foru erkidegoko enpresen finantzaketa arazoak konpontze aldera.

Lege eta neurri horiek guztiak onetsi dira Nafarroako Gobernuaren eta PSN-PSOEren arteko adostasunari esker. Nafarroako sozialistak konbentzita gaude neurri horien beharraz, komenigarritasunaz eta erabilgarritasunaz, estatu mailako beste neurriekin batera gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoari aurre egiteko.

Hala ere, Nafarroako enpresa askok –enpresa txiki eta ertainak, gehienetan– kontsultak eta kexak egin dituzte, finantzaketarako lerro eta abal berri horiek zehaztu eta gauzatzekoan sortzen diren arazoengatik.

Halaber, nolabaiteko sakabanatzea dago Foru Komunitateko Administrazioak izan beharreko arreta arduratsu eta bizkorrean, eta horrek zailtasunak sortu ditu, laguntzak eskatu behar diren tokia-ri, eta, batez ere, laguntzei buruzko informazio zehatza jaso daitekeen tokia-ri buruz.

Eta, hain zuzen, finantzaketa neurri buruzko informazioa jasotzea eta izapideak egitea erraztu eta arintze aldera, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu, ondoko helburuekin:

1-. Foru erkidegoko finantzaketa errazteko hartu diren neurri guztien aplikazioa bultzatzea eta arintzea.

2-. Horien izapidetzea erraztea.

3-. Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez Estatuan hartutako neurriekin koordinatzeko irizpideak ezartzea.

4-. Erreferentzia-gune zentral bat sortzea enpresen finantzaketarako. Erreferentzia-gune horrek ondoko eginkizunak izanen ditu:

– Ukitutako departamentu guztien jarduera koordinatzea.

– Eskaera guztien aurkezpen eta izapidetzea koordinatzea.

– Interesa duten enpresei aholku ematea foru erkidegoaren meneko neurrien ezaugarriei, norainokoari, edukiari eta izapidetzeari buruz, bai eta Estatuak ezarritako neurriei buruzko informazioa ematea ere.

– Gobernuo departamentuen, elkarren bermerako sozietateen, bankuen eta xede horietarako akreditatutako hirugarrenen protokoloen berri izatea, jarduerari, aholkularitzari eta laguntzen izapidetzeari eta onespenari dagokienez.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du politika zalu eta eraginkorra balia dezan enpresa-finantzaketako lerroak eta abalak aplikatzean, eta, hartara, horiek koordinatu

eta izapidetzeko eta horiei buruz aholku emateko erreferentzia-gune bat sor dezan. Erreferentzia-gune horrek ondoko eginkizunak izan ditu:

• Foru erkidegoko finantzaketa errazteko hartu diren neurri guztien aplikazioa bultzatzea eta arintzea.

• Neurri horien izapidetzea erraztea.

• Ukitutako departamentu guztien jarduera koordinatzea.

• Eskaera guztien aurkezpena eta izapidetzea koordinatzea.

• Interesa duten enpresei aholku ematea foru erkidegoaren meneko neurrien ezaugarriei, norainokoari, edukiari eta izapidetzeari buruz, bai eta Estatuak ezarritako neurriei buruzko informazioa ematea ere.

• Gobernuo departamentuen, elkarren bermerako sozietateen, bankuen eta xede horietarako akreditatutako hirugarrenen protokoloen berri izatea, jarduerari, aholkularitzari eta laguntzen izapidetzeari eta onespenari dagokienez.

• Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez Estatuan hartutako neurriekin koordinatzeko irizpideak ezartzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lorko aintziraren egoerari buruzko azterlan gaurkotu bat egin dezan, haren natur balioen babes-mailari dagokionez.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lorko aintziraren egoerari buruzko azterlan gaurkotu bat egin dezan, haren natur balioen babes-mailari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordearen eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeko kideek duela gutxi Lorko aintzirara egini niko bisitan, ikusi genuen 18,5 hektareako aintzira natural bat dela, Nafarroako Ereku Hezeen Inbentarioan sartuta dagoena.

Aintzira Ablitas eta Cascante artean dago, urteetan zehar artifizialki handitu da, ura ureztatzeko erabiltze aldera, eta oraindik ere horretarako erabiltzen da bertako ura. Eskualde horretako ekosistema garrantzitsutzat hartzen da, bertan mota askotako hegaztiak aurkitzen dutelako bizigai, eta Nafarroako Erriberako zenbait udalerrien artean dagoen eremu heze bakarra da.

Gaur egun, Nafarroako ur-hegaztientzako hamar eremu heze garrantzitsuenetako bat da, baina, hala ere, indarrean dagoen legerian aurreikusitako babes eraginkorrerako figurarik ez zaio aplikatu.

Bere kokapen geografikoa –Nafarroako hegoaldeko muturrean dago– toki pribilegiatu bat da; izan ere, sedimentazio-eremu bat baita hegazti migratzaileentzat, bai Sahararen bestaldekoentzat –udan Afrikatik etortzen direnak–, bai Pirinioez bestaldekoentzat –neguan Europako iparraldetik etortzen direnak–. Tokiak –bertan ez dago espezie horiei enbarazu egiten dien jarduera antropikorik– eta inguruko ekologiak ahalbidetzen dute Lorko aintzira izatea zutabeetako bat zeinetan oinarritzen baita zenbait espezieetako animalia asko Nafarroan igarotzen duten negualdia. Halaber, aintzira hau da inguru hauetan gutxitan aurkitzen diren espezie gehien ikusi diren Nafarroako eremu hezea.

Ur-hegazti negutar eta habiagileen azken errollen arabera, Lorko aintzira hegaztientzako 15 eremu heze onenen artean kokatu da. Hala, 2008an seigarren tokian zegoen, ur-hegaztien habiagintzarako garrantzitsuak diren eremu hezeen artean –sei espezieetako 164 bikote umetu ziren–. 2007an zazpigarren tokia bete zuen neguko eskualdeko erroldan –zazpi espezie negutiarreko 522 hegazti–, eta 2009an seigarren tokia bete du – sei espezie negutiarreko 1.068 hegazti–.

Lorko aintzirako hegaztien espezie garrantzitsuenak 16 dira, eta, hortaz, murgilari europarra edo kopetazuri arruntaren negualdirako eremu heze garrantzitsuenetako bat da. Urtean zehar aintzira honetan egoten diren hegazti espezie gehienak espezie babestuak dira, eta batzuk desagertzeko arriskuan dauden espezie gisa katalogatuta daude. Gainera, nabarmendu behar da zenbait hegazti harraparik ere aintziran egiten dutela habia eta bertan umetzen direla, eta aintzira erabiltzen dutela larreratze-eremu edo atsedenerako-eremu gisa beren migrazio-ibilbideetan.

Gaur egun, esan daiteke Lorko aintzira Nafarroan Ebro ibaitik hegoaldera daudenen artean eremu heze garrantzitsuena dela, bertan dauden animalien ikuspuntutik, urte osoan hartzen dituen espezie kopuruagatik, baita hegazti kopuruagatik ere.

Halaber, Lorko aintziraren inguruan dago Nafarroako baso natural garrantzitsuenetako bat. Ehun urtetik gora dituzten olibondoz osatua dago, eta bere ezaugarri ekologikoak direla eta, tanpoi-eginkizun garrantzitsua du aintziraren maila ekologikoa mantentzeko; izan ere, ekintza antropikoa leuntzen du eta, aldi berean, hegaztien babes-eremua da. Ingurune horrek ahalbidetzen du hegaztiak neguan jan ahal izatea eta hegaztien babes- eta atsedene-eremua da, bai neguan, haize hotzetik babesteko, bai udan, gehiegizko berotik babesteko.

Azaldutakoaren ondorioz, uste dugu beharrezkoa dela aztertzea azken urteotan izandako aldaketak, Lorko aintziran urte osoan bizi diren hegaztiei dagokienez, bai eta naturgune babestuen figura egokia ezartzea ere.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Hiru hilabeteko epean Lorko aintziraren egoerari buruzko azterlan gaurkotu bat egin dezan, haren natur balioen babes-mailari dagokionez (hegaztiei, landareei eta paisaiari buruzkoa).

2. Azterlan horretan oinarriturik, beharrezkoa den naturgune babestuen figura ezartzea, Lorko aintzirako eta haren inguruko natur-balioak zaindu eta sustatzeko.

Ablitasen, 2009ko martxoaren 25ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan San Frantzisko Xabierkoa Psikogeriatrikoaren Plan Estrategikoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Mozio hori 2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat taxutu eta bidal dezan, PFEZean gizarte-intereseko beste xede batzuetarako laukitxoaren bidez lortutako tributu-dirusarreren destinoa arautzeko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege proiektu bat taxutu eta bidal dezan, PFEZean gizarte-intereseko beste xede batzuetarako laukitxoaren bidez lortutako tri-

butu-dirusarreren destinoa arautzeko, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Mozio hori 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Antolamendua Hobetzeko Planaren amaierari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Antolamendua Hobetzeko Planaren amaierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oinarrizko Osasun Laguntzako zerbitzuaren antolamendua hobetzeko proiektuaren lehen fasearen ebaluazioa egin zenean, zure departamentuak hobekuntza guztiak plan batean idatziz jasotzeko konpromisoa hartu zuen.

Galdera:

Kontseilariaren ustez, noizko egonen da prest plan hori?

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, larrialdi zerbitzuak bateratzeari buruzko adituen batzordearen osaerari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, larrialdi zerbitzuak bateratzeari buruzko adituen batzordearen osaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroa-

ko Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela hilabete baino gehiago, Legebiltzarraren Osoko Bilkurak onetsi zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, larrialdi zerbitzuak bateratzeari buruzkoa. Horrekin batera onetsi zen baita ere Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako

zuzenketa bat, bateratze horretan lan eginen duen adituen batzorde bat sortzeko. Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Nortzuk dira batzorde horren kideak?

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garalde y Lazkano

Galdera, Barañaingo liburuzainei *Berria* eta *Gara* egunkariak erosteko ezarritako debekuari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Barañaingo liburuzainei *Berria* eta *Gara* egunkariak erosteko ezarritako debekuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudi-

an xedatutakoaren arabera, Nafarroako liburutegietako baliabideak direla-eta, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Fermín Guillorme jaunak, Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegietako Zerbitzuburu denak, *Berria* eta *Gara* egunkariak erosteko debekua ontzat eman du, eta Barañaingo liburuzainei agindu die bertako zinegotziak hartutako erabakia betetzeko, nahiz eta udal horren eta Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenak horrelakorik ez adierazi.

Ikusita hartutako erabakia, pentsatu al du kontseilariak Guillorme jauna kargu gabetzea?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan eratutako batzordei buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan eratutako batzordei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua arautzen duen ekainaren 18ko 50/2007 Foru Dek-

retuaren 6. artikuluan aurreikusten denez, kontseiluaren organo iraunkorrak izanzen diren hiru batzorde sortuko dira: 1) Enpleguko Kalitateari buruzko Batzordea, 2) Gizarte Zerbitzuen Zorroaren Jarraipenari eta Aldaketari buruzko Batzordea, eta 3) Zerbitzuak Baimentzeko, Erregistratzeko eta Homologatzeko Sistemari buruzko Batzordea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legearen garapenak duen garrantzia enplegua sortzeko eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko, ondoko ahozko galdera aurkeztu dut:

- Zenbat aldiz bildu dira batzorde horiek sortu zirenetik?

- Zer lan egin eta zer ondorio atera dituzte batzorde horiek azken urte eta erdian?

- Halaber, jakin nahiko nuke zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak enpleguaren sorrerari eta enplegu horren mota eta izaerari dagokierik, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzeko sistema abian jartzearen ondorioz.

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakiteko noiz eta nola beteko duen Osasun Departamentuak Parlamentuaren agindua, Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako eraikinaren proiektua aldatzeari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko noiz eta nola beteko duen Osasun Departamentuak Parlamentuaren agindua, Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako eraikinaren proiektua aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite

Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Otsailaren 26an, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak proposaturiko mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako zerbitzuaren proiektua berriro landu eta/edo birmoldatu zezan, halako moduz non azpiegitura berean bilduko ziren Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjinako larrialdietarako zerbitzuak.

Geroago, ikusi ahal izan genuen larrialdietarako eraikina egiteko lanen lizitazioa iragarri zela,

proiektua ezertan aldatu gabe, Nafarroako Parlamentuak horretara premiatu arren.

Gaur egun, hilabete bat iragan denean, eta egindakoaren aurrean, parlamentari honek ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

- Noiz eta nola beteko duen Osasun Departamentuak Parlamentuaren agindua, zeinaren bidez premiatzen zuen, besteak beste, Nafarroako Ospitaleko larrialdietarako eraikinaren proiektua alda zezan?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari ordainik emateko, hasiera batean Lekarozko zentrorako zen kontusaila hezkuntza eta kultura arloko proiektuetarako bideratzeagatik.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari ordainik emateko, hasiera batean Lekarozko zentrorako zen kontusaila hezkuntza eta kultura arloko proiektuetarako bideratzeagatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a

Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ekonomia kontseilariak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2009ko aurrekontuan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari dagokion atalean, 1.200.000 euroko kontusaila zegoen Lekarozko ikastetxerako. Geroago, Gobernuak erabaki du ikastetxea hezkuntzarekin eta kulturarekin zerikusia duten xedeetarako erabiltzea. Hori dela eta,

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik hasierako zenbatekoaren titularra zen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari nolabaiteko konpentsazioa emateko, kontusail berezi baten bidez, azkenean beste arlo batzuetarako erabiliko diren 1.200.000 euro horiengatik?

Iruñean, 2008ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, “Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusailari buruzko galdera.

- Zein da kontusail horren betetze maila gaur egun?

- 2008an egin al zen transferentziarik kontusail honetan dirua egon zedin? Noiz egin zen aipatu transferentzia?

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko zer formula zehatz erabili den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan dirusarreraren atal bakoitzean.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer formula zehatz erabili den Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan dirusarreraren atal bakoitzean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

2009ko otsailaren 12an, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin zuen, jakiteko zer premisa, adierazle, datu eta aurreikuspenetan oinarritu zen Nafarroako Gobernuaren 2009rako aurrekontu orokorren proiektuko dirusarreraren atala prestatzeko (7-09/PES-00052). Hari erantzunez, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunak ondokoa adierazi zuen:

“2010eko dirusarreraren zenbatespena egiteko, betiko moduan, tributu-dirusarrerak zenbatesteko

teknikak eta parametroak erabili ziren, zerga-kontzeptu desberdinei aplikatuta.

Zehatz-mehatz, honako hauek aplikatzen dira:

– Parametro eta magnitude ekonomiko orokorak (BPGa, enplegu-tasa eta BPGaren deflaktatzailea, besteak beste).

– Zenbait sektore edo kontsumori buruzko parametro eta magnitude berariazkoak (honakoei buruzkoak, besteak beste: hidrokarburoak, tabakoa, etxebizitza eta ibilgailuak).

– Dirusarreraren aurrekontuan eragina izan dezaketen arau-aldaketen kostu fiskalen simulazioak (adibidez, 440 euroen erreforma).

– Zerga-kontzeptuen bilakaeraren eta joeren azterketa eta aplikazioa, aurreko urteetan.

– Dirusarrera arrunten eta berezien arteko zatiketa.

– Azkenik, beste edozein datu, parametro edo teknika, tributu-dirusarreretan eragina izan dezakeela uste bada.”

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Erabilitako formula zehatza, parametro, simulazio, azterketa eta zatiketen arabera, zehaztuta zer kopuru esleitu zaion horietako bakoitzari eta adierazita nola zehaztu den dirusarrerei buruzko atal bakoitzeko emaitza, 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren egiturari.

Iruñean, 2008ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Erromanikoaren Lagunen Elkartek eta Izagaondoko Udala kanpaina bat egiten ari dira Gergitiaingo (Izagaondoa) herri hutseko San Martingo eliza erortzen ez uzteko. Kanpainaren goiburua da “Salba dezagun Gergitiain”. Eliza eraikin txiki bat da, XII. mendeko amaierako eta XIII. mendeko hasierako Nafarroako landa eremuko Erromanikoaren adierazgarria. Habearte bakarra dauka, ipar-ekialdera begira.

2009ko urtarrilaren 27an, Nafarroako Gobernuak eta PSNk Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Plana sinatu zuten. Planean ez dago Gergitiaingo San Martin elizaren aipamenik.

2009ko martxoaren 17an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Plana azaltzeko. Agerraldi hartan ere ez zen Gergitiaingo San Martin elizaren aipamenik egin. Eliza hori aipatu zuen bakarra Burguete jauna izan zen.

Kontuan hartuta parlamentariok aukera izan genuela eliza horren egoera ikusteko bertara eginitako bisita batean, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Gergitiaingo San Martin eliza Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean sartzeko?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Leader Ardatzeko kofinantzaketako diruaren erabilerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Leader Ardatzeko kofinantzaketako diruaren erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako aurrekontu orokorretako dirusarren aurrekontu bateratuaren arabera, Leader-PDR Ardatzeko (2007-2013) kofinantzaketako zenbatekoa 1.732.500 eurokoa izan da 2008an. Jakina denez, "Leader Plus (2007-2013) FEDER ardatza" izeneko 72320-722001-7819-412102 kontusaila, 2.585.000 euro zituen, Nafarroako Gobernuak eginiko aurrekontu-murrizketaren barruan zegoen eta ez zen bete.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Zertarako erabili da Nafarroako 2008ko aurrekontu orokorretako dirusarreraren aurrekontu bateratuan sartuta dagoen Leader-PDR Ardatzeko (2007-2013) kofinantzaketako dirua -1.732.500 euro-?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Tracasako akziodunetan 2003tik aitzina izandako aldaketei eta aldaketa horien arrazoiei eta irizpideei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Tracasako akziodunetan 2003tik aitzina izandako aldaketei eta aldaketa horien arrazoiei eta irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2003an, Trabajos Catastrales S.A. (TRACASA) enpresaren akzioak honela zeuden banatuta: % 49, Nafarroako Gobernuarena zen; % 30, Nafarroako Kutxa Korporazioarena; % 11 GTT sozietatearen; eta, azkenik, % 10, IECISA sozietatearena. 2003 eta 2007 bitarteko Nafarroako Kontu Orokorrak aztertzen baditugu, ikusiko dugu aldaketak egon direla akzioen banaketari dagokionez. Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

a) Zer aldaketa izan dira TRACASako akziodunetan 2003tik aitzina, eta zeintzuk izan dira aldaketa horien arrazoiak eta irizpideak?

b) Zeintzuk dira gaur egun "Trabajos Catastrales, S.A." enpresaren akziodunak?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Baluarteko Ganbera Aretoan eginiko jardueri buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Baluarteko Ganbera Aretoan eginiko jardueri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena

Baluartea-Biltzar jauregi eta auditorioaren erai-kina gune ederra da, era guztietako ekitaldi kultural eta merkataritzaren arloak hartzeko modukoa. Eraikinak berak eta bertako jardunak ekarri dute foru erkidegoko kultura eskaintza handitzea kualitatiboki eta kuantitatiboki, eta ahalbidetu du estatuko eta atzerriko musika-, dantza- eta antzerki-

talde entzutetsuak Nafarroara etorri ahal izatea. Jarduera gehienak 1.600 ikusle baino gehiagorentzat tokia duen areto nagusian egin dira.

Baina Baluarteak badu ere ganbera areto bat, lagungarria izan daitekeena foru erkidegoko bizitza sozial eta kulturala garatu eta dinamizatzeko. Eraikinaren beheko solairuan dago, kafetegiaren ondoan, eta, fundazioaren webgunearen arabera, tamaina txikiko kontzertu eta kultura jardueratarako erabiltzen da.

Areto horren eragina eta bertan egiten diren jarduerak ezagutze aldera, hau jakin nahi dut:

Galderaren testua

1.- Areto horretan inauguratu zenetik eginiko jardueren zerrenda, urtearen arabera zehaztuta.

2.- Areto horretan inauguratu zenetik eginiko jarduera hertsiki kulturalen zerrenda, urtearen arabera zehaztuta.

3.- Ganbera aretoan eginiko jardueren ehunekoak, jarduera kopuru osoari dagokionez.

4.- Ganbera aretoan eginiko jardueren ehunekoak, Baluartean egin den jarduera kopuru osoari dagokionez.

5.- Ganbera aretoak duen eragina eraikinaren utsiaketari buruzko kontuetan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planak 502.354.319 euroko gastu publiko dakar, guztira.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Zein da Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an guztira betetako gastua?

2. 2007an eta 2008an eginiko gastutik, zenbat ditu jarri du Nafarroako Gobernuak eta zenbat Europar Batasunak FEADER-en bidez?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan 2007an eta 2008an eginiko gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planak 502.354.319 euroko gastu publikoa dakar, guztira.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. 2007an eta 2008an eginiko gastuetatik, zenbat diru bideratu da nekazaritzaren sektorearen lehiakortasunari buruzko 1. ardatzera? Zenbat bideratu da FEADER-en 2. ardatzera (garapen jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena)? Zein da 3. ardatzera bideratutako diru kopurua? Zein da 4. ardatzera (LEADER) bideratutako diru kopurua? Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuna ardatz bakoitzerako jarritako kopuruak zehaztea nahi nuke.

2. Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan, LEADER ardatzera bideratzen den diru kopurua da aurrekontuetan agertzen denaren % 11,6, hau da, 23.778.000 euro. Nafarroako Gobernuak zenbat diru bideratu du Nafarroako Landa Garapenaren 2007-2013 Urteetako Planaren barruan, LEADER ardatzera?

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzaz Departamentuak baimendutako maileguei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenaren kariatara Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimendutako maileguei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren 5. klausulak, etxebizitza gaietako ekintza babesgarriak finantzatzeko lerroak finkatzeari buruzkoak, ondokoa ezarzen du:

“Lankidetzaren hitzarmen honetan ezarritako mailegu bat emateko, beharrezkoa izanena da Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren banan-banango baimena.”

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

1.- Zenbat mailegu baimendu dira hitzarmen horretan oinarrituta?

2.- Zenbat mailegu ez dira baimendu? Zergatik ez?

3.- Etxebizitza babestuen esleipendunetatik zenbatek ezin izan dute eskuratu halako mailegu bat?

Hitzarmen hori indarrean dagoenetik esleitu diren etxebizitzaren zerrenda bat nahiko nuke. Hala ere, jakin nahiko nuke zenbat mailegu eman diren hitzarmenean oinarrituta.

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren kariatara banketxeek emandako eta ukatutako maileguei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren kariatara banketxeek emandako eta ukatutako maileguei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuaren eta finantza-entitateen arteko lankidetzaren hitzarmenaren 5. klausulak, etxebizitza gaietako ekintza babesgarriak finantzatzeko lerroak finkatzeari buruzkoak, ondokoa ezarzen du:

“Kreditu-entitateak mailegua emateari uko egiten dion kasuetarako, hilerok jakinaraziko dio Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, ekintza babesgarrien kopurua eta mota adierazita.”

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Zenbat mailegu-eskaera ukatu dituzte bankuentitateek orain arte?

Nahiko nuke erantzunean zehaztea zein entitatek ukatu duen mailegu-eskaera entitatea eta hori zein hilabetetan gertatu den.

Iruñean, 2009ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Langileen Batzordearen 2009ko martxoaren 25eko Erabakiaren bidez eskatu zen 2009ko apirilaren 14tik 16ra bitarteko lan-astearen goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan hartuta ezen 2009ko apirilaren 14, 15 eta 16an ez dagoela aurreikusita Parlamentuko jarduerarik, eta bat etorri bai Nafarroako Parlamentuaren eta aipatu batzordearen arteko akordioarekin, Mahaiaren 2002ko ekainaren 17ko Erabakiz onetsia, eta bai iragan urtarrilaren 28an onetsitako Akordioaren 10. atalean ezarritakoarekin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea; halatan, 2009ko apirilaren 14, 15 eta 16ko lanaldia goi-

zkoa izanen da, baina hori ez da eragozpen izanen, baldin eta beharrezkoa bada, Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo betetzea, behar diren langileek arratsalde ere lan egin dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2009ko apirilaren 14, 15 eta 16an, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta jakinaraztea parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarteen eledunei, Langileen Batzordeari, Legelari Nagusiari eta Legebiltzarreko zerbitziburuei.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

